

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/EE Zuzentaraua, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, pertsonen datuen tratamenduari eta datu horiek askatasunez zirkulatzeari dagokienez.

Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak,

Europako Erkidegoaren Eratze-Ituna, eta bereziki, 100 A artikulua ikusi ondoren

Batzordearen proposamena ikusi ondoren (1)

Ekonomia eta Gizarte Batzordearen ebazpena ikusi ondoren (2),

Itunaren 189 B artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorriz (3),

(1) Kontuan izanik, Itunean definitutako Erkidegoaren helburuak, Europar Batasuneko Itunean aldatuta geratu zen bezala, ondoko hauek direla: Europako herrien artean gero eta batasun handiagoa lortzea, Erkidegoko Estatu kideen artean harreman estuagoak finkatzea, elkarren arteko ekintzen bidez aurrerapen ekonomiko eta soziala bermatzea, Europa zatitzen duten mugak ezabatzea, bere herrien bizi-baldintzen etengabeko hobekuntza sustatzea, bakea eta askatasuna babestea eta sendotzea, eta demokrazia sustatzea; hori guztia, Estatu kideen konstituzioetan eta legeetan, eta Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunaren Babeserako Europako Itunean onartutako oinarrizko eskubideak oinarri hartuta;

(2) Kontuan izanik datuen tratamenduko sistemak gizakiaren mesedetan daudela; edozein dela pertsona fisikoen nazionalitatea edo bizilekua, pertsona fisikoen askatasuna eta oinarrizko eskubideak errespetatu behar dituztela, intimitatea batez ere, eta gizakia lagundu behar dutela aurrerakuntza ekonomikoak eta sozialak lortzen, elkartrukeak garatzen, baita norbanakoen ongizatea areagotzen ere;

(3) Kontuan izanik barne merkatuaren ezarpena eta funtzionamendua, non Itunaren 7 A artikulua arabera bermatuta dagoen salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen joan-etorri askea; ezarpen eta funtzionamendu horiek beharrezko bilakatzen dute Estatu kide batetik bestera datu pertsonalen joan-etorri askeaz gain, pertsonen oinarrizko eskubideen babesa;

(4) Kontuan izanik Erkidegoan gero eta gehiagotan jotzen dela datu pertsonalen tratamendura hainbat sektoretako jarduera ekonomiko eta sozialetan; informazioaren teknologien aurrerakuntzak datuen tratamendua eta elkar trukea asko errazten duela;

(5) Kontuan izanik, Itunaren 7 A artikuluan definituta dagoen barne merkatuaren ezarpenetik eta funtzionamendutik eratortzen den integrazio ekonomiko eta sozialak

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



nahitaez datu pertsonalen mugaz gaindiko fluxuen handitze nabarmena ekarriko duela Estatu kideen bizitza ekonomiko eta sozialeko eragileen artean, publikoak zein pribatuak izan; Estatu kideen lurretan finkaturiko enpresen arteko datu pertsonalen trukeak garapen handia izango duela; Estatu kideen administrazio nazionalak, Erkidegoaren Zuzenbidea aplikatuz, elkarrekin lan egitera eta datu pertsonalak trukatzera derrigortuta daudela, beren eginkizuna betetzeko edo beste Estatu kide batzuen kontura zenbait funtzio betetzeko, mugarik gabeko eremu den barne merkatuaren markoan;

(6) Kontuan izanik, gainerakoan, Erkidegoan lankidetzat zientifiko eta teknikoaren indartzeak, baita telekomunikazio sare koordinatu berrien ezarpenak ere exijitu eta erraztu egiten dutela datu pertsonalen mugaz gaindiko zirkulazioa;

(7) Kontuan izanik, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsonen eskubide eta askatasunen eskubideen —intimitearena batez ere— babes mailen artean desberdintasun handiak daudela horiek bermatzen dituzten Estatu kideen artean, eta eragotzi dezaketela datuak Estatu kide batetik bestera helaraztea; beraz, ezberdintasun horiek erkidegoan zenbait jardura ekonomiko burutzeko oztopo izan daitezkeela, lehiakortasuna faltsutu dezaketela eta erkidegoko Zuzenbidearen izenean administrazioei dagozkien eginkizun batzuk burutzeko eragozpen izan daitezkeela; babes mailetan dauden ezberdintasunak Estatu kideen lege, araudi eta administrazio xedapenetan dauden ezberdintasunei leporatu behar zaizkiela;

(8) Kontuan izanik datu pertsonalen zirkulazioaren oztopoak ezabatzeko pertsonen eskubide eta askatasunen babesa —datuen tratamenduari dagokionez—, baliokidea izan behar duela Estatu kide guztien artean; barne merkaturako funtsezkoa den helburu hori, ezin dela lortu Estatu kideen ahalegin hutsekin, kontuan hartzen badugu gaur egun dauden ezberdintasun handiak arlo horretako Estatu kideen legedi nazionaletan, eta Estatu kideen artean legediak koordinatzeko dagoen beharra mugaz gaindiko datu pertsonalen fluxua era koherentean arautua izan dadin eta Itunaren 7 A artikulua zehaztutako barne merkatuaren helburuekin bat; beraz, Erkidegoak esku hartu behar du legediak hurbiltzeko;

(9) Kontuan izanik, legedi nazionalak hurbiltzearen ondorioz babesa antzekoa dela eta, Estatu kideek ezingo dutela oztopatu datu pertsonalen zirkulazioa pertsona fisikoen eskubide eta askatasunen, eta bereziki intimitatearen babesaren izenean; Estatu kideek maniobra tarte bat izango dutela Zuzentarau honen aplikazioaren testuinguruan, solaskide ekonomiko eta sozialek erabil dezaketena; Estatu kideek aukera izango dutela, beraz, beren zuzenbide nazionalean datuen tratamenduaren zilegitasun baldintza orokorrak zehazteko; era horretan jardutean, Estatu kideak saiatuko direla gaur egun beren legediak eskaintzen duen babesa hobetzen; hala ere, maniobra tarte horren barruan eta Erkidego Zuzenbidearekin bat, desberdintasunak sor daitezkeela Zuzentarau hau ezartzean, eta horrek ondorioak izan ditzakeela datuen zirkulazioan bai Estatu kide baten barnean zein Erkidegoan;

(10) Kontuan izanik datu pertsonalei dagozkien legedi nazionalak oinarritzeko eskubide eta

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



askatasunen babesa bermatzea dutela helburu, bereziki, bizitza pribatuaren eskubidea, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasuna Babesteko Europako Hitzarmenaren 8. artikuluan eta Erkidego Zuzenbidearen printzipio orokorretan aitortzen dena; beraz, legedi horiek hurbiltzeak ez duela ekarri behar bermatzen duten babesaren murriztea, aitzitik, Erkidegoaren barruan babesik handiena izan behar duela helburu;

(11) Kontuan izanik, Zuzentarau honek jasotzen dituen pertsonen eskubide eta askatasunen babes printzipioek, eta batez ere intimitatearen errespetuarenak, zabaldu eta zehaztu egiten dituela Europako Kontseiluaren 1981eko urtarrilaren 28ko Itunekoak pertsonen babeserako datu pertsonalen tratamendu automatizatuari dagokiona;

(12) Kontuan izanik, babes printzipioak datu pertsonalen tratamendu guztiei ezarri behar zaizkiela, tratamenduaren erantzulearen jarduerak Erkidegoaren Zuzenbidearen aplikazioaren eremuan sartzen direnean; pertsona fisiko baten eskutik egindako datuen tratamendua hortik kanpo utzi behar dela, jarduera guztiz pertsonala edo etxekoa denean, korrespondentzia edo helbideen zerrenda baten kasuan esate baterako;

(13) Kontuan izanik, Europar Batasuneko Itunaren V. eta VI. atalek aipatzen dituzten jarduerak, hain zuzen, segurtasun publikoa, defentsa, Estatuaren segurtasuna eta Estatuaren jarduerak eremu penalean ez daudela sartuta Erkidegoaren Zuzenbidearen aplikazio eremuan, Estatu kideei Itunaren 56. artikuluan 2 atalean eta 57 eta 100 A artikuluen arabera dagozkien beharrei kalterik egin gabe; Estatuaren ongizate ekonomikoa zaintzeko behar den izaera pertsonaleko datuen tratamendua ez dela sartuko Zuzentarau honen aplikazio eremuan tratamendu hori Estatuaren segurtasunarekin lotuta dagoenean;

(14) Kontuan izanik, informazio gizartearen markoan nolako garrantzia duen tekniken garapenak, pertsona fisikoei dagozkien soinu edo irudiz sorturiko datuak atzemateko, transmititzeko, maneiatzeko, erregistratzeko, kontserbatzeko edo komunikatzeko, Zuzentarau hau datu horiei dagozkien tratamenduei aplikatu beharko zaiola;

(15) Kontuan izanik, datu horiei dagozkien tratamenduak Zuzentarau honek babesten dituela soilik automatizatuak daudenean, edo datuak artxibo egituratu batean daudenean edo egongo direnean pertsonen dagozkien irizpide berezi batzuen arabera, behar diren izaera pertsonaleko datuak eskuratzea erraza izan dadin;

(16) Kontuan izanik, soinu edo irudiz osatutako datuen tratamendua, baita bideo-kameraz jasotakoak ere, ez direla sartzen Zuzentarauaren aplikazio eremuan, helburuak ondoko hauek direnean: segurtasun publikoa, defentsa, Estatuaren segurtasuna edo zuzenbide penalaren arloekin zerikusia duten Estatuaren jardueren aritzea, edo Erkidegoaren Zuzenbidearen aplikazio eremuan sartzen ez diren beste jarduera batzuk;

(17) Kontuan izanik, kazetaritza helburuekin, edo literatur edo arte adierazpenarekin lotutako soinu edo irudien tratamenduari dagokionez, ikus-entzunezkoen arloa bereziki, Zuzentarauaren printzipioak era murriztuan aplikatuko direla 9. artikuluan xedatutakoaren

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



arabera;

(18) Kontuan izanik, Zuzentarau honek bermatzen duen babesetik kanpo inor aurkitzea ekiditeko, beharrezkoa dela Erkidegoak burutzen duen datu pertsonalen tratamendu orok Estatu kideetako baten legedia errespetatzea; hori dela eta, komenigarria dela Estatu kide baten tratamendu-erantzulearen agintepean jarduten duen edozein pertsonak egindako datuen tratamendua Estatu horren legediaren aplikaziopean jartzea;

(19) Kontuan izanik, Estatu kide baten lurraldean finkatzeak nahitaez dakarrela errealki jarduera bat burutzea finkatze egonkor baten bidez; finkatze horren era juridikoa, sukurtsal bat izan edo nortasun juridikoa duen enpresa filial bat, horri dagokionez ez dela faktore erabakigarria; erantzule berbera finkatua dagoenean Estatu kide batean baino gehiagotan, enpresa filial baten bitartez bereziki, bermatu egin behar dela, establezimendu bakoitzak Zuzenbide nazionalak jarduera horiei ezarritako eginbeharrak betetzen dituela, aplikagarria den arauditik ihes egin ez dezan batez ere;

(20) Kontuan izanik, datuen tratamenduaren erantzulea hirugarren herri batean finkatuta egoteak ez duela oztopatu behar Zuzentarau honetan aitortzen den pertsonen babesa; kasu horietan datuen tratamendua erabilitako bitartekoak kokatzen diren Estatu kidearen legediaren arabera zuzendu behar dela, eta berme-neurriak hartu behar direla Zuzentarau honetan aurreikusten diren eskubide eta eginbeharrak praktikan errespetatuak izan daitezen;

(21) Kontuan izanik, Zuzentarau honek ez diela eragiten lurraldetasun arauetara; gai penaletan;

(22) Kontuan izanik, Estatu kideek bere legedian edo Zuzentarau honen arabera onartuko diren xedapenen aplikazioaren baitan, datuen tratamenduaren zilegitasun baldintzak zehaztuko dituztela; 5. artikulua bereziki, 7. eta 8. artikuluekin lotuta Estatu kideei eskaintzen diela arau orokorretatik kanpo, sektore berezietan datuen tratamendurako baldintza bereziak aurreikustea, baita 8. artikuluan aurreikusita dauden datuen kategoria ezberdinetarako ere;

(23) Kontuan izanik, Estatu kideak ahalbidetuta daudela pertsonen babesa bermatzeko, bai lege orokor baten bidez, pertsonen babesari dagokiona izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren babeserako, bai sektore legeen bitartez, estatistika institutuei dagozkienak bezalakoak;

(24) Kontuan izanik, pertsona juridikoak babesteko legediak, beraiekin zerikusia duten datuen tratamenduari dagokionez, ez direla Zuzentarau honen xedea;

(25) Kontuan izanik, babes printzipioek bere adierazpena dutela, batetik, tratamenduak — datuen kalitateari, segurtasun teknikoari, kontrol agintariei ohartarazteari eta tratamendua egin daitekeen egoerei bereziki dagozkien eginbeharrak — egiten dituzten pertsona, aginte publiko, enpresa, agentzia edo bestelako erakunde batzuei dagozkien hainbat eginbeharretan, eta bestetik, pertsonen zor zaizkien eskubideetan beren datuak

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



tratamenduaren xede direnean tratamenduari buruzko informazioa jaso, zuzentzea eskatu edo zenbait egoeratan tratamenduari uko egin ahal izateko;

(26) Kontuan izanik, babes printzipioak pertsona identifikatuarekin edo identifikagarriarekin zerikusia duen edozein informaziori aplikatu behar zaizkiola; pertsona bat identifikagarria den ala ez erabakitzekeo tratamenduaren erantzuleak edo beste pertsonaren batek modu arrazoizkoan erabil ditzakeen bitartekoen multzo bat hartu behar dela kontuan pertsona hori identifikatzeko; babes printzipioak ez direla aplikatuko anonimo bilakatu diren datuei, hau da, interesatua identifikatzea ezinezko bihurtu denean; 27. artikulua araberako jarrera kodeak elementu erabilgarriak izan daitezkeela, azalpenak eskaintzen dituztelako datuak anonimo bihurtzeko eta kontserbatzeko bitartekoei buruz, interesatua identifikatzea eragozterainoko moduan;

(27) Kontuan izanik, pertsonen babesa aplikatu behar zaiela bai datuen tratamendu automatikoari, bai esku tratamenduari; babes honen hedapena ez dela egon behar erabilitako tekniken baitan, izan ere, kontrakoak saiheste arrisku larriak eragin ditzake; dena den, esku tratamenduari dagokionez, Zuzentarau honek fitxategiak baino ez dituela hartzen bere baitan, eta ez zaiola aplikatzen egituratuta ez dauden karpetei; fitxategi baten edukia, batez ere, pertsonen dagozkien irizpide zehatzen arabera egituratu behar dela, datu pertsonalera iristea erraztuko dutenak; 2. artikulua c) letran jasotzen den definizioaren arabera, izaera pertsonaleko datuen multzo egituratu baten elementuak erabakitzea ahalbidetzen duten irizpideak eta datu multzo horretara iristea arautzen duten irizpideak, Estatu kide bakoitzak defini ditzakeela; karpetak zein karpeta multzoak, baita azalak ere, irizpide zehatz batzuen arabera egituratuak ez badaude ez direla inongo kasutan egongo Zuzentarau honen aplikazio eremuaren barnean;

(28) Kontuan izanik, datu pertsonalen tratamendu oro interesatuarekiko modu zilegi eta leialean egin behar dela; bilatzen diren helburuekiko datu egokiak, doituak eta ez gehiegizkoak izan behar dutela; helburu horiek esplizituak eta zilegiak izan behar dutela, eta zehaztuta egon behar dutela datuak eskuratzeko unean; datuak lortu ondorengo tratamenduen helburuak ezin direla bateraezinak izan hasieran zehazturiko helburuekiko;

(29) Kontuan izanik, oro har datu pertsonalen ondorengo tratamenduak, helburu historikoak, estatistikoak edo zientifikoak badituzte ez direla bateraezintzat hartuko datuak jaso ziren helburuekiko, betiere Estatu kideek beharrezkoak diren bermeak ezarri badituzte; berme horiek eragotzi behar dutela datuak erabiliak izatea edozein pertsonaren aurka neurriak edo erabakiak hartzeko;

(30) Kontuan izanik, datu pertsonalen tratamendua zilegi izateko interesatuaren onarpenean oinarritu behar dela gainera, edo beharrezkoa izan daitekeela interesatua behartuko duen kontratu bat egiteko, edo lege-eginbehar bat betetzeko, edo interes publikodun misio bat betetzeko, edo aginte publikoa burutzeko, edo pertsona baten interes legitimoa burutzeko, betiere interesatuaren interes eta eskubide eta askatasunak gailentzen ez badira; jokoan dauden interesen oreka ziurtatzeko bereziki, Estatu kideek zehaztu ditzaketela izaera

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



pertsonaleko datuak erabili ahal izateko eta hirugarrenei komunikatzeko baldintzak, zilegi diren enpresen eta bestelako erakundeen ohiko kudeaketako jardueretan; era berean, Estatu kideek aukera dutela aurrez ezartzeko hirugarren batzuei datu pertsonalen komunikazioa egiteko baldintzak, prospekzio komertzialetan, ongintzako erakundeek egiten dituzten prospekzioetan edo bestelako erakunde batzuek edo fundazioek, esate baterako, izaera politikodunak, betiere, dagokien datuen tratamenduari interesatuek uko egitea ahalbidetuko dien xedeen errespetuaren baitan, arrazoiak aipatu behar izan gabe, eta gasturik gabe;

(31) Kontuan izanik, datu pertsonalen tratamendu bat zilegitzat hartuko dela interesatuaren bizitzaren funtsezko interes bat babesteko asmotan erabiltzen denean;

(32) Kontuan izanik, legedi nazionaleri dagokiela erabakitzea interes publikoko misioa edo aginte publikoari dagokiona duen tratamenduaren erantzulea, administrazio publikoren batek izan behar duen edo zuzenbide publiko edo pribatuko beste pertsonaren batek, elkarte profesional batek esate baterako;

(33) Kontuan izanik, gainerakoan, bere izaerarengatik oinarrizko askatasunak edo intimitatea eraso ditzaketen datuak ez direla inolako tratamenduren xede izan behar, salbu eta interesatuak baimen esplizitua eman duen kasuetan; modu esplizituan adierazita egon behar dutela debeku horren salbuespenak behar berezietarako, hain zuzen ere, datu horien tratamendua osasunarekin loturiko helburuekin egiten denean eta legez sekretu profesionala gordetzera behartuta dauden pertsona fisikoen aldetik, edo zilegitzat jotzen diren jarduera batzuetarako zenbait elkarteren aldetik edo funtsezko askatasunak gauzatzea xede duten fundazio batzuen aldetik;

(34) Kontuan izanik, Estatu kideei ere baimena eman beharko zaiela interes publiko garrantzitsuek justifikatzen dutenean debeku horri salbuespenak egitea, hain zuzen ere, osasun publikoa eta gizarte babesaren moduko kategoria sentiberen tratamenduan — kalitatearen eta errentagarritasunaren bermeari dagokionez bereziki—, baita gaixotasun seguruen erregimenean prestazio eta zerbitzuen erreklamazioak konpontzeko erabiltzen diren prozeduretan, ikerketa zientifikoan eta estatistika publikoetan; beraiei dagokiela, hala ere, berme egokiak eta zehatzak aurreikustea pertsonen oinarrizko eskubideak eta bizitza pribatua babesteko;

(35) Kontuan izanik, gainera, interes publikoko arrazoi garrantzitsuen izenean, ofizialki aitortuta dauden elkarte erlijiosoen datu pertsonalen tratamendua aginte publikoen aldetik egiten dela Zuzenbide Konstituzionalean edo Nazioarteko Zuzenbide Publikoan ezarritako helburuen arabera;

(36) Kontuan izanik, hauteskondeekin loturiko jardueretan, Estatu kide batzuen sistema demokratikoaren funtzionamenduak eskatzen badu alderdi politikoek herritarren ideologia politikoari buruzko datuak jasotzea, baimena eman ahal izango dela datu horiek tratatzeko interes publiko handiko zioengatik, betiere berme egokiak ondo finkatzen badira;

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



(37) Kontuan izanik, kazetaritza edo adierazpen artistiko edo literarioko helburuetarako, ikus-entzunezkoen arlorako bereziki, datuen tratamendurako salbuespenak edo murrizpenak aurreikusi behar direla Zuzentarau honen zenbait xedapenetan, beharrezkoa denean pertsonaren oinarrizko eskubideak eta adierazpen askatasuna uztartzeko, hain zuzen ere, informazioak jaso eta emateko askatasuna, Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasuna Babesteko Europako Itunaren 10. artikulua bermatzen duen gisan; beraz, oinarrizko eskubide horiek haztatzeko, Estatu kideei dagokiela beharrezkoak diren salbuespenak eta murrizpenak aurreikustea datuen tratamenduaren legezketasunari buruzko neurri orokorreki dagokienez, hirugarren herri batzuei datuak helarazteari buruzkoak, eta aginteen kontrol kompetentzietan buruz, hala ere, horrek ez luke sustatu behar Estatu kideek salbuespenak aurreikustea tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurrien kasuan; era berean, gaiaren ardura duen kontrol aginteari kompetentzia batzuk gutxienez eman beharko litzaizkiokeela a posteriori, horri buruz txosten bat argitaratzea aldioro esate baterako, edo aginte judizialen aurrean lege-prozedura batzuei hasiera ematea;

(38) Kontuan izanik, datuen tratamendu leialak haxe dakarrela, interesatuek tratamenduen berri izateko moduan egon behar dutela eta datu horiek beraiengandik ateratzen direnean, lortze horren zirkunstantzietan buruz ahalik eta informaziorik zehatzena eta osatuena izan behar dutela;

(39) Kontuan izanik, zenbait tratamenduk erantzuleak berak zuzenean jaso ez dituen datuei dagozkiela; bestalde, zilegi dela datuak komunikatzea hirugarren bati interesatuaren eskutik datuak jaso direnean, aurreikusita ez bazegoen ere; egoera horietan guztietan interesatua informatu behar dela datuak erregistratzeko unean, edo beranduen, hirugarren bati lehenengo aldiz datuak komunikatzeko garaian;

(40) Kontuan izanik, hala ere, ez dela beharrezkoa eginbehar hori ezartzea interesatua informatua baldin badago, edo erregistroa edo komunikazioa legeak espresuki aurreikusten badu, edo ezinezkoa bada interesatua informatzea, edo neurritz kanpoko ahaleginak eskatzen baditu, esate baterako, xede historikoak, estatistikoak edo ikerketakoak dituzten tratamenduen kasua; horri dagokionez kontuan har daitezkeela interesatuen kopurua, datuen antzintasuna, eta neurri orekatzaile posibleak;

(41) Kontuan izanik, edozein pertsonak eskubidea izan behar duela berari dagozkion eta tratamenduaren xede diren datuetara sarbidea izateko, baieztatzeko batez ere horien zehaztasuna eta tratamenduaren zilegitasuna; arrazoi berberengatik edozein pertsonak eskubidea izan behar duela gainera tratamendu automatizatuaren azpian dagoen logika ezagutzeko, 15. artikulua 1. atalarekin lotuta dauden erabaki automatizatuaren kasuan gutxienez; eskubide horrek ez duela gutxietsi behar negozioen sekretua, ezta jabetza intelektualarena ere, eta bereziki programa informatikoa babesteko duen egile eskubidearena; hala ere, horrek ez duela suposatzen behar interesatuari edozein informazio ukatzea;

(42) Kontuan izanik, dagokion interesatuaren interesean eta hirugarrenen eskubide eta

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



askatasunak babesteko, Estatu kideek sarbide eta informazio eskubideak mugatu ahal izango dituztela; aukera izango dutela zehazteko, esate baterako, izaera medikoko datuetarako sarbidea medikuntzako profesional baten bitartez soilik lortu ahal izango dela;

(43) Kontuan izanik, Estatu kideek mugak jarri ahal izango dizkietela sarbide eta informazio eskubideei baita tratamenduaren erantzulearen zenbait eginbeharri, hertsiki beharrezkoak diren neurrian, esate baterako, Estatuaren segurtasuna, Estatu kide baten edo Batasunaren defentsa, segurtasun publikoa, interes ekonomiko edo finantzario garrantzitsuak ziurtatzeko, eta ikerketak egiteko eta zigor-prozedurei hasiera emateko edo baita araututako lanbideetan arau deontologikoen urraketak ezesteko ere; aipatzea komeni dela, salbuespenak eta mugak zehazte aldera, beharrezko kontrol-, ikuskatze- edo arautze-eginkizunak azken hiru sektoreetan, hau da, segurtasun publikoa, interes ekonomiko eta finantzarioak, eta errepresio penala; hiru sektoreei dagozkien eginkizunen zerrenda horrek ez diela eragiten Estatuaren segurtasunaren edo defentsaren izenean salbuespenen eta murrizpenen zilegitasunari;

(44) Kontuan izanik, Erkidegoaren Zuzenbidearen izenean Estatu kideek behartuta ikus dezaketela bere burua Zuzentarau honen xedapenei salbuespenak ezartzeko pertsonen buruzko informaziorako sarbide eskubideari eta datuen kalitateari dagokienez, gorago aitortu diren helburu batzuk bermatze aldera;

(45) Kontuan izanik, zilegi denean ere datuen tratamendu bat egitea interes publikoagatik edo aginte publikoaren eginkizunagatik, edo pertsona fisiko baten interes zilegia dela eta, edozein pertsonak eskubidea izan behar duela ukatzeko berari dagozkion datuak tratamenduaren xede izatea, bere egoera zehatzari dagozkion oinarria duten eta zilegi diren arrazoen izenean; Estatu kideek, hala ere, aukera dutela horren aurkako xedapen nazionalak ezartzeko;

(46) Kontuan izanik, datu pertsonalen tratamenduari dagozkion eskubide eta askatasunen babesak neurri teknikoak eta antolakuntza egokiak eskatzen duela, bai tratamenduaren sistema sortzen den unean, bai tratamendu horien aplikazioan bertan, batez ere, segurtasuna bermatzeko eta, beraz, baimenik ez duten tratamenduak eragozteko; Estatu kideei dagokiela tratamenduaren erantzuleek neurriak errespetatzen dituztela zaintzea; neurri horiek segurtasun egokia bermatu behar dutela kontuan izanik teknikaren egoera eta bere aplikazioaren kostua tratamenduak dituen arriskuekiko edota babestu behar diren datuen izaerarekiko;

(47) Kontuan izanik, datu pertsonalak dituen mezu bat helarazten denean era horretako mezuak transmititzea helburu soila duen telekomunikazio zerbitzu baten bitartez edo posta elektronikoz, mezuan azaltzen diren datu pertsonalen tratamenduaren erantzuleztat hartuko dela normalean mezua bidaltzen duen pertsona eta ez transmisio zerbitzua eskaintzen duena; dena den, zerbitzu horiek eskaintzen dituzten pertsonak zerbitzuaren funtzionamendurako beharrezkoak diren datu pertsonal osagarrien tratamenduaren erantzuleztat hartuko direla;

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



(48) Kontuan izanik, kontrol aginteari jakinarazteko prozedurek tratamenduen helburuen eta haien ezaugarri nagusien publikitatea ziurtatzea dutela xede, Zuzentarau hori aplikatze aldera xedapen nazionalen arabera;

(49) Kontuan izanik, izapide administratibo desegokiak ekiditeko Estatu kideek jakinarazpenetan salbuespenak edo sinplifikatzeak finka ditzaketela interesatuen eskubide eta askatasunak urratzen ez direnean, betiere, Estatu kideak mugak zehazten diren eta onartutako egintza batekin bat badatoz; Estatu kideek salbuespena edo sinplifikatzea aplikatzea ditzaketela tratamenduaren erantzuleak izendatutako arduradun batek ziurtatu duenean egindako tratamenduek ezin dituztela urratu interesatuen eskubideak eta askatasunak; datuen babesaren ardura duen pertsonak, tratamenduaren erantzulearen enplegatua izan ala ez, bere funtzioak independentzia osoz bete beharko dituela;

(50) Kontuan izanik, Zuzenbide nazionalarekin bat, salbuespenak edo sinplifikatzeak ezarri ahal izango direla tratamenduaren xede bakarra publikoaren informazioa helburu duten erregistroen mantenua denean, eta publikoak edo interes zilegia justifikatzen duen edozein pertsonak kontsultatzeko eskuragarri direnean;

(51) Kontuan izanik, dena den, jakinarazpenaren eginbeharraren salbuespenetik edo sinplifikatzeetik ondorioztatzen den onurak ez duela salbuesten tratamenduaren erantzulea Zuzentarau honetatik eratortzen diren gainontzeko eginbeharrez;

(52) Kontuan izanik, testuinguru honetan ondorengo kontrola agintari eskumendunen aldetik neurri nahikotzat hartu behar dela oro har;

(53) Kontuan izanik, hala ere, zenbait tratamenduk arrisku bereziak ekar ditzaketela interesatuen eskubide eta askatasunen ikuspegitik, horien izaeragatik, hedapenagatik edo helburuagatik, nahiz interesatuak eskubide, prestazio edo kontratu batetik kanpo geratzeko edo teknologia berri baten erabilera bereziarengatik duen arriskuagatik; Estatu kideen eskumena dela, hala nahi izanez gero, arrisku horiek zehaztea beren legedietan;

(54) Kontuan izanik, gizartean sustatzen diren tratamendu guztien artean arrisku partikular horiek dituztenen kopurua oso murrizta izan beharko litzatekeela; tratamendu horietarako, eta hauek burutu aurretik, Estatu kideek aurreikusi behar dutela aurre azterketa bat egitea kontrol-agintearen eskutik edo datuen babesaren arduradunaren eskutik agintearekin lankidetzan; aurre-kontrol horren ondoren eta Zuzenbide nazionalak dioenaren baitan, kontrol-aginteak ebazpen bat egin ahal izango duela edo datuen tratamendua baimendu; aurre-azterketa hori egin ahal izango dela Parlamentu nazionala lege-neurri bat egiten ari den bitartean ere, edo lege-neurri horretan oinarrituta, tratamendu izaera definituko duen eta berme egokiak zehaztuko dituen neurri bat egiten ari den bitartean;

(55) Kontuan izanik, legedi nazionalak aurreikusi behar dutela errekurtsio judicial bat

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



datuen tratamenduaren erantzuleak interesatuen eskubideak errespetatzen ez dituen kasuetarako; zilegi ez den tratamendu baten ondorioz kalteak jasan ditzaketen pertsonen kalte-ordainak jaso behar dituztela datuen tratamenduaren erantzulearengandik, eta erantzukizunetik salbuetsita egongo dela soilik frogatzen bada kaltea ezin zaiola leporatu, batez ere frogatzen badu interesatuaren beraren erantzukizuna edo ezinbesteko kasua izan dela; zigorrak ezarri behar zaizkiola Zuzentarau hau aplikatzeko erabakitako xedapen nazionalak errespetatzen ez dituen pertsona orori, bai zuzenbide pribatuan bai zuzenbide publikoan;

(56) Kontuan izanik, datu pertsonalen mugaz gaindiko fluxua beharrezkoa dela nazioarteko merkataritzaren garapenerako; Erkidegoan Zuzentarau honek bermatzen duen pertsonen babesak ez duela ukatzen babes egokia bermatzen duten hirugarren herri batzuetara datu pertsonalak helaraztea; hirugarren herri batek eskaintzen duen babesaren izaera egokia aztertu behar dela transferentziarekin edo transferentzien kategoriarekin zerikusirik duten zirkunstantzia guztiak kontuan hartuta;

(57) Kontuan izanik, bestalde, hirugarren herri batek babes egokia eskaintzen ez duenean debekatu egin behar dela bertara datu pertsonalak transferitzea;

(58) Kontuan izanik, zenbait egoeratan salbuespenak onartu behar zaizkiola debeku horri, interesatuak baimena eman duenean, transferentzia beharrezkoa denean kontratu edo ekintza judizial batekin zerikusirik duelako, interes publiko handi baten babesak hala eskatzen duenean, esate baterako, nazioarteko datuen transferentzien kasuan administrazio fiskal edo aduanakoak edo gizarte segurantzaren gaian konpetentziak dituzten zerbitzuetan, edo transferentzia egiten denean legedian aurreikusita dagoen erregistro batetik publikoak edo interes zilegia duten pertsonen kontsultak egiteko helburuarekin; kasu horretan, transferentziak ez diola eragin behar datuen edo erregistroa dagoen datu kategorien guztizkoari; erregistro baten helburua interes zilegia duten pertsonen kontsulta denean, transferentzia soilik egin ahal izango dela pertsona horiek hala eskatzen badute, edo berauek direnean jasotzaileak;

(59) Kontuan izanik, neurri bereziak har daitezkeela hirugarren herri batean tratamenduaren erantzuleak berme egokiak eskaintzen baditu; bestalde, negozioazio prozedurak aurreikusi behar direla Erkidegoaren eta dagokien hirugarren herrien artean;

(60) Kontuan izanik, edozein kasutan, transferentziak hirugarren herrietara soilik egin ahal izango direla guztiz errespetatzen badira Estatu kideek Zuzentarau honen aplikaziorako onartutako xedapenak, 8. artikulua xedatutakoa bereziki;

(61) Kontuan izanik, Estatu kideek eta Batzordeak —bakoitzak bere eskuduntzen barruan— sustatu behar dutela sektore profesionalek jarrera kodeak egin ditzaten zenbait sektoretan, kontuan hartuta egindako datuen tratamenduaren izaera berezia, Zuzentarau honen aplikazioa errazteko, eta betiere haren aplikaziorako onartutako xedapen nazionalak errespetatuz;

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



(62) Kontuan izanik, Estatu kide bakoitzean independentzia osoz funtzioak beteko dituen kontrol-aginte bat sortzea funtsezko elementu bat dela pertsonen babeserako datu pertsonalen tratamenduari dagokionez;

(63) Kontuan izanik, aginte horrek beharrezkoak diren bitartekoak izan behar dituela bere funtzioa betetzeko, bai ikertzeko edo esku hartzeko ahalmena— aginteari aurkezten zaizkion erreklamazio kasuetan bereziki—, bai epaiketetan agertzekoa; aginte horrek lagundu behar duela dagokion Estatu kidean egindako datuen tratamenduak gardenak izaten;

(64) Kontuan izanik, Estatu kideen agintariek elkarri laguntza eskaini behar diotela funtzioen betekizunean, Europar Batasun osoan babes neurriak guztiz errespetatzen direla bermatua egon dadin;

(65) Kontuan izanik, Europar Batasunaren eremuan datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, funtzioak independentzia osoz beteko dituen babes talde bat sortu behar dela; izaera berezi hori kontuan hartuta, taldeak Batzordea aholkatu beharko duela eta bereziki lagundu beharko diola Zuzentarau honen aplikazioan, onarturiko arau nazionalak era uniformearen aplikatuak izan daitezzen;

(66) Kontuan izanik, hirugarren herri batzuetarako datuen transferentziari dagokionez, Zuzentarau honen aplikazioak eskatzen duela Batzordeari betetzeko eskumenak aitortzea eta prozedura bat sortzea Kontseiluaren 87/373/CEE Erabakian ezarritako modalitateekin bat (1);

(67) Kontuan izanik, 1994ko abenduaren 20an Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen artean modus vivendi-a adostu zutela Europar Batasunaren Itunaren 189. artikuluan ezarrita dagoen prozedurarekin bat etorritik onartutako ekintzak aplikatzeko neurriei dagokienez;

(68) Kontuan izanik, pertsonen eskubideen eta askatasunen babes printzipioak, eta intimitatearen errespetuari dagokiona bereziki, Zuzentarau honen helburu den datu pertsonalen tratamenduaren gaian osatu edo zehaztu ahal izango direla batez ere zenbait sektore jakinetan, printzipio horiekin bat datozen arau berezi batzuen bidez;

(69) Kontuan izanik, egokitzat jotzen dela Estatu kideei hiru urtetik gorakoa izango ez den epe bat ematea Zuzentarau honen transposizioarako neurri nazionalak indarrean jartzen direnetik, era horretan, modu progresiboan aplikatu ahal izateko xedapen nazional berriak dagoeneko egon badauden datuen tratamenduetan; kostuaren eta eragingarritasunaren arteko erlazio egokia duen aplikazioa errazteko Estatu kideei epe osagarri bat eskainiko zaiela, 12 urtekoa hain zuzen ere, Zuzentarau hau onartzen den egunetik aurrera, data horretan leudekeen esku-fitxategiak Zuzentaruaren xedapenekin bat datozela bermatzeko; fitxategi horietan dauden datuak benetan eskuz tratatzen diren arren tarteko epe luzatu

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



horretan ere, xedapen horiekin bat etorri behar dutela bere tratamendua egiten denean;

(70) Kontuan izanik, Zuzentarau hau dela-eta onarturiko xedapen nazionalak indarrean jarri eta gero, ez dela bidezkoa interesatuak berriro baimena eman behar izatea erantzuleak datu sentiberen tratamendua aurrera eramateko, xedapen horiek indarrean jarri aurretik kontratuak betetzeko baimena askatasunez eta beharrezko informazioa jaso alde aurretik ondoren emanda zutenen kasuan;

(71) Kontuan izanik, Zuzentarau honek ez diola ukatzen Estatu kide bati bere lurraldean bizi diren kontsumitzaileei zuzendutako merkataritza prospekzioko jarduerak arautu ditzan, betiere arautze horrek ez badio eragiten pertsonen babesari datu pertsonalen tratamenduei dagokienez;

(72) Kontuan izanik, Zuzentarau honek baimentzen duela kontuan hartzea dokumentu ofizialetara sarbide publikoaren printzipioa Zuzentarau honetan azaldu diren printzipioak aplikatzeko garaian,

ONDORENGO ZUZENTARAUA ONARTU DUTE:

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. *Zuzentaruaren xedea*

1. Zuzentarau honen xedapenen arabera eta datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsona fisikoen askatasunen eta oinarrizko eskubideen babesa, batez ere intimitatearen eskubidearena, bermatuko dute Estatu kideek.
2. Estatu kideek ezingo dute Estatu kideen arteko datu pertsonalen zirkulazio askea mugatu edo debekatu 1. idatz-zatian azaltzen diren arrazoiekin loturiko arrazoiengatik.

2. Artikulua. *Definizioak*

Zuzentarau honen ondorioetarako, hona hemen definizio batzuk:

a) «datu pertsonalak»: identifikatutako edo identifika daitekeen pertsona fisiko ("interesatu") baten gaineko informazio oro; zuzenean edo zeharka nor den jakiteko moduko edonor hartuko da identifikagarritzat, eta, bereziki, nortasun zenbaki baten bidez edo ezaugarri baten edo batzuen bidez identifika daitekeen edonor, berdin dio ezaugarri horiek fisikoak, fisiologikoak, psikikoak, ekonomikoak, kulturalak edo sozialak izan;

b) «datu pertsonalen tratamendua» («tratamendua»): eragiketa edo eragiketa multzoa, prozedura automatizatuekin eginda edo ez, datu pertsonalei aplikatzen zaiena, besteak beste, datuak biltzea, erregistratzea, antolatzea, kontserbatzea, sortzea eta aldatzea, erauztea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisio bidez komunikatzea, hedatzea edo beste edozein era erraztuko duena sartzea, erkatzea edo interkonektatzea, blokeatzea, ezabatzea edo suntsitzea;

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



c) «datu pertsonalen fitxategia» («fitxategia»): datu pertsonalen multzo egituratua, zenbait irizpideren arabera eskuragarria, zentralizatua, deszentralizatua edo era funtzionalean edo geografikoan banatua;

d) «tratamenduaren erantzulea»: berak bakarrik edo beste batzuekin datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta bitartekoak erabakitzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintari publiko, zerbitzu edo beste zeinahi erakunde; tratamenduaren xedeak eta bitartekoak lege xedapen edo araudi nazional edo erkidegokoek erabakitzen dituzten kasuetan, tratamenduaren erantzulea nor izango den edo bere izendapenerako irizpide zehatzak Zuzenbide nazionalak edo erkidegokoak finka ditzakete;

e) «tratamenduaren arduraduna»: erantzulearen aginduz, berak bakarrik edo beste batzuekin batera, datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, aginte publikoa, zerbitzua edo beste edozein erakunde izan daiteke;

f) «hirugarrena»: interesatua, tratamenduaren erantzulea, tratamenduaren arduraduna eta tratamenduaren erantzulearen edo arduradunaren aginte zuzenpean datuak tratatzeko pertsona baimendua ez den pertsona fisiko edo juridikoa, agintari publikoa, zerbitzua edo edozein erakunde;

g) «hartzailea»: datuen komunikazioa jasotzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, aginte publikoa, zerbitzua edo edozein erakunde, hirugarren bat izan edo ez. Dena den, ikerketa jakin baten markoan datuen komunikazio bat jaso dezaketen agintariak ez dira hartzailetzat hartuko;

h) «interesatuaren adostasuna»: interesatuak baiezkoa ematea bere datu pertsonalak tratatzeari, modu askean, berariaz eta zer egiten duen jakinda.

3. Artikulua. *Aplikazio eremua*

1. 1. Zuzentarau honen xedapenak datu pertsonalen tratamendu automatizatuari, partziala zein erabatekoa, ezarriko zaizkio, baita fitxategi batean dauden edo sartuko diren datu pertsonalen tratamendu ez automatizatuerei ere.

2. 2. Zuzentarau honen xedapenak ez dira aplikatuko datu pertsonalen tratamenduan ondorengo kasu hauetan:

- Erkidegoko Zuzenbidearen aplikazio eremuan sartzen ez diren jardueren ariketan egindako datuen tratamenduak, hau da, Europar Batasunaren Itunaren V. eta VI. tituluen xedapenetan aurreikusten direnetan, eta edozein kasutan, datuen tratamenduaren helburua hauetako bat denean: segurtasun publikoa, defentsa, Estatuaren segurtasuna (Estatuaren ongizate ekonomikoa barne, tratamendu hori Estatuaren segurtasunarekin lotuta dagoenean) eta Estatuaren jarduerak gai penalean;

- tratamendua pertsona fisiko batek egiten duenean jarduera guztiz pertsonalean edo etxe barruan.

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



4. Artikulua. *Zuzenbide nazional aplikagarria*

1. Estatu kideek Zuzentarau hau datu pertsonal orori ezartzeko onartu dituen xedapen nazionalak aplikatuko dituzte ondorengo kasu hauetan:

a) tratamendua Estatu kidearen lurraldean egiten denean tratamenduaren erantzulearen finkatze jardueren markoan. Tratamenduaren erantzule berbera Estatu kide batzuen lurraldeetan finkatuta dagoenean, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu finkatze bakoitzak Zuzenbide nazional aplikagarrian aurreikusitako eginbeharrak betetzen dituela bermatzeko;

b) tratamenduaren erantzulea Estatu kidearen lurraldean finkatuta ez dagoenean, baizik eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren baitan bere legedi nazionala aplikatzen den lekuren batean;

c) tratamenduaren erantzulea Erkidegoaren lurraldeetan finkatuta ez dagoenean eta datu pertsonalen tratamendurako Estatu kidearen lurraldean dauden bitarteko automatizatuak erabiltzen dituen edo ez, salbu eta bitarteko horiek Europar Batasuneko lurraldeetatik pasatzeko xedez bakarrik erabiltzen direnean.

2. 1. idatz-zatiaren c) letrako kasuan, tratamenduaren erantzuleak Estatu kide horretan finkatuta dagoen ordezkari bat izendatu beharko du, tratamenduaren erantzulearen aurka susta daitezkeen ekintzen kalterik gabe.

II. KAPITULUA. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUETAKO ZILEGITASUNARI BURUZKO BALDINTZA OROKORRAK

5. Artikulua

Estatu kideek kapitulu honen xedapenen mugen barruan zehaztu egingo dute zein baldintzatan diren zilegiak datu pertsonalen tratamenduak.

I. ATALA. DATUEN KALITATEARI DAGOZKION PRINTZIPIOAK

6. Artikulua

1. Estatu kideek zainduko dute datu pertsonalak ondoren zehazten den eran erabiliak izan daitezen:

a) era leial eta zilegian tratatuak izatea;

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



b) helburu zehatz, esplizitu eta zilegiei begira jasoak, eta helburu horiekin bateragarriak ez diren moduan erabiliak izan ez daitezzen; ez da bateraezintzat hartuko ondorengoko tratamendua helburu historikoei, estatistikoei edo ikerketakoei begira egiten bada, betiere, Estatuak berme egokiak ezartzen badituzte;

c) egokiak eta bidezkoak izatea eta gehiegizkoak izan gabe jasotzen diren helburuekiko eta ondoren erabiliko direnekiko;

d) zehatzak izatea eta beharrezkoa denean eguneratuak; zentzuzko neurriak hartuko dira datuak jaso ziren helburuekiko edo ondoren erabiliko direnekiko zehaztugabeak edo osagabeak direnean, ezabatuta edo zuzenduta egon daitezzen;

e) interesatuen identifikazioa ahalbidetzeko moduan jaso ziren helburuekiko edo ondoren erabiliko direnekiko beharrezkoa den epean gorde egingo dira, ez luzeago. Estatu kideek berme egokiak ezarriko dituzte epe hori baino luzeagoan artxibatzen diren datu pertsonalen kasuan, hain zuzen ere, xede historikoa, estatistikoa edo ikerketakoa dutenak.

2. Tratamenduaren erantzuleei dagokie 1. idatz-zatian xedatutakoa betetzen dela bermatzea.

II. ATALA. DATUEN TRATAMENDUEN ZILEGIZTATZEARI DAGOZKION PRINTZPIOAK

7. Artikulua

Estatu kideek xedatuko dute datu pertsonalen tratamendua ondoren zehazten diren baldintzetan soilik egin ahal izatea:

a) interesatuak ezin nahasizko eran eman badu baimena, edo b) interesatua parte den kontratu bat betetzeko beharrezkoa bada, edo interesatuak hala eskatuta aurre-kontratuko neurriak aplikatzeko, edo c) tratamenduaren erantzulea lotuta dagoen eginbehar juridiko bat betetzeko beharrezkoa denean, edo d) beharrezkoa bada interesatuaren bizi- interesa babesteko, edo e) beharrezkoa bada interes publikoko misio bat betetzeko edo tratamenduaren erantzuleari emandako aginte publikoaren jarduerari badagokio edo datuak komunikatzen zaizkion hirugarren bati, edo f) beharrezkoa bada tratamenduaren erantzulearen edo datuak komunikatzen zaizkion hirugarren baten edo batzuen interes zilegia asebetetzeko, betiere, gailentzen ez badira interesatuaren interesa edo oinarrizko eskubideak eta askatasunak Zuzentarau honen 1. idatz-zatiaren 1. artikulua araberako babesa behar dutenean.

III. ATALA. TRATAMENDUEN KATEGORIA BEREZIAK

8. Artikulua. Datuen kategoria berezien tratamenduak

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



1. 1. Estatu kideek debekatu egingo dituzte zenbait ezaugarri agerrarazten dituzten datu pertsonalen tratamenduak, besteak beste, arrazaren edo etniaren jatorria, iritzi politikoak, sinesmen erlijiosoak edo filosofikoak, sindikatu baten kide izatea, baita osasunari eta sexualitateari buruzko datuen tratamendua ere.
2. 1. idatz-zatian xedatutakoa ez da aplikatuko ondorengo kasu hauetan:
 - a) tratamendu jakin bati interesatuak baimen esplizitua eman badio, salbu eta Estatu kide baten legedian xedatzen bada 1. idatz-zatian ezarritako debekua ezin dela salbuetsi interesatuaren baimenarekin, edo b) tratamendua beharrezkoa bada Lan zuzenbide gaian eginbeharrak eta eskubide bereziak errespetatzeko, legediak baimena eman eta berme egokiak aurreikusi dituen neurrian, edo c) tratamendua beharrezkoa bada interesatuaren edo beste pertsona baten bizi-interesa babesteko, interesatua fisikoki edo juridikoki ezgaitua den kasuetan berak baimena emateko, edo d) tratamendua fundazio batek edo, xede politiko, filosofiko, erlijioso edo sindikala duen elkarte edo irabazi asmorik gabeko beste edozein erakundek egiten duenean bere jarduera zilegien barruan eta beharrezkoak diren bermeekin, betiere soil-soilik bere kideei edo fundazio, elkarte edo erakundearekin haien xedea dela-eta harreman iraunkorrek dituzten pertsonen badagozkie, eta hirugarren batzuei ez bazaizkie datuak helarazten interesatuen baimenik gabe, edo e) tratamendua interesatuak argi eta garbi publiko egin dituen datuei dagokienean, edo beharrezkoa balitz prozedura judizial batean eskubide baten aitortpen, ariketa edo defentsarako.
3. 1. idatz-zatia ez da aplikatuko datuen tratamendua osasun prebentzio edo diagnostikoetarako, osasun asistentzia edo tratamendu medikoetarako edo osasun zerbitzuen kudeaketarako beharrezkoa denean, betiere, datuen tratamendu hori osasun profesional baten eskutik egiten bada, legedi nazionalak edo eskumendun agintari nazionalak ezarritako arauak direla-eta sekretu profesionalaren pean dagoena, edo beste pertsonaren baten eskutik baina baita isilpeko antzeko eginbear azpian dagoena ere.
2. 4. Beharrezkoak diren bermeak ezarriz gero, Estatu kideek aukera izango dute interes publikoko arrazoi garrantzitsuak direla eta, 2. idatz-zatian aurreikusitakoez gain bestelako salbuespen batzuk jartzeko, bere legedi nazionalaren bidez edo kontrol agintarien erabaki bidez.
5. Arau hausteei, zigor penalei edo segurtasun neurriei dagozkien datuen tratamendua agintari publikoaren kontrolpean soilik egin ahal izango da; edo Zuzenbide nazionalan berme zehatzak aurreikusita badaude, Estatu kideak ezar ditzakeen salbuespenen kalterik gabe, berme egokiak eta zehatzak aurreikusten dituzten xedapen nazionaletan oinarrituta. Dena den, zigor penalen erregistro osoa botere publikoaren kontrolpean soilik eraman ahal izango da.
Estatu kideek erabaki dezakete zigor administratiboei edo prozedura zibilei dagozkien datuen tratamenduak ere botere publikoen kontrolpean egitea.
3. 6. 4. eta 5. idatz-zatiek ezartzen dituzten 1. idatz-zatiaren xedapenei egindako salbuespenak Batzordeari jakinaraziko zaizkio.
4. 7. Estatu kideek zehaztuko dute identifikazio-zenbaki nazional bat edo izaera orokorreko identifikazio beste edozein modu zein baldintzatan izan daitekeen tratamendu baten xede.

9. Artikulua. Datu pertsonalen tratamendua eta adierazpen askatasuna

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



Kazetaritza edo adierazpen artistiko edo literarioa xede duten datu pertsonalen tratamendua dela eta, Estatu kideek salbuespenak ezarriko dituzte kapitulu honen, IV. eta VI. kapituluaren xedapenei dagokienez, baina beharrezkoak diren neurrian soilik intimitatearen eskubidea eta adierazpen askatasuna zuzentzen dituzten arauak bateratzeko.

IV. ATALA. INTERESATUAREN INFORMAZIOA

10. Artikulua. *Informazioa datuak interesatuak berak eman dituenean*

Estatu kideek xedatuko dute tratamenduaren erantzuleak edo bere ordezkariak jakinarazi behar dizkiotela bildu diren datuak dagozkion pertsonari, gutxienez ondoren zerrendatzen den informazioa, salbu eta pertsona horrek dagoeneko informazioa jasota duen:

a) tratamenduaren erantzulearen identitatea edo, hala badagokio, bere ordezkariarena; b) datuak baliatuko dituen tratamenduaren xedeak; c) era honetako beste edozein informazio:

- jasotzaileak edo datuen jasotzaileen kategoriak,

- erantzunaren derrigorrezko izaera edo ez, eta erantzutera ukatzen bada pertsona interesatuak nolako ondorioak jasan ditzakeen,

- dagozkion sarbide eta zuzenketa eskubideak egotea, datuak lortzen diren zirkunstantzia bereziak kontuak izanik, informazio osagarri hori agian beharrezkoa izango baita interesatuarekiko datuen tratamendu leial bat bermatzeko.

11. Artikulua. *Informazioa datuak interesatuak berak eman ez dituenean*

1. Datuak interesatuak berak emanda lortu ez direnean, Estatu kideek xedatuko dute, datuen erregistroaren unean bertan edo hirugarren bati komunikatzea pentsatzen denean, datuen lehenengo komunikazioaren unean beranduen, tratamenduaren erantzuleak edo bere ordezkariak interesatuari jakinarazi beharko dizkiotela, gutxienez ondoren zerrendatzen diren informazioak, salbu eta interesatua ordurako informatua egon den:

a) tratamenduaren erantzulearen identitatea edo, hala badagokio, bere ordezkariarena;

b) datuak baliatuko dituen tratamenduaren xedeak;

c) era honetako beste edozein informazio:

- tratamenduko datuen kategoriak,

- jasotzaileak edo datuen jasotzaileen kategoriak,

- dagozkion sarbide eta zuzenketa eskubideak egotea; datuak lortzen diren zirkunstantzia bereziak kontuan izanik, informazio osagarri hori agian beharrezkoa izango baita

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



interesatuarekiko datuen tratamendu leiala bermatzeko.

2. 1. idatz-zatiaren xedapenak ez dira aplikatuko bereziki helburu estatistikoa duten edo, ikerketa historikoa edo zientifikoa diren tratamenduetan, interesatua informatzea ezinezkoa denean edo izugarrizko ahaleginak eskatzen dituzenean, edo erregistroa edo hirugarren bati komunikatzea legeak espresuki aginduta daudenean. Kasu horietan, Estatu kideek berme egokiak ezarriko dituzte.

V. ATALA. INTERESATUAREN SARBIDE ESKUBIDEA DATUETARA

12. Artikulua. *Sarbide eskubidea*

Estatu kideek interesatu guztiei bermatuko diete tratamenduaren erantzulearen eskutik ondoren zehazten ditugun hauek lortzeko eskubidea:

a) askatasunez, mugarik gabe, arrazoizko epe batean eta gehiegizko atzerapen eta gasturik gabe:

- berari dagozkion datuen tratamendurik dagoen ala ez dagoen baieztatzea, baita gutxienez tratamendu horien xedeak ere, dagozkien datuen kategoriak, eta datu horiek komunikatuko zaizkien jasotzaileak edo jasotzaileen kategoriak;

- komunikatzea, modu ulergarrian, tratamenduen xede diren datuak, baita datuen jatorriari buruz eskuragarri dagoen informazio guztia ere;

- interesatuari dagozkion datuen tratamendu automatizatuen logika ezagutaraztea, gutxienez, 15. artikulua 1. idatz-zatian dagozkion erabaki automatizatuen kasuetan; b) hala dagokionean, datuak zuzentzea, kentzea edo blokeatzea, horien tratamendua ez datorrenean bat Zuzentarau honen xedapenekin, batez ere kausa datuak osatugabeak edo guztiz zuzenak ez izatea denean; c) datuak komunikatu zaizkien hirugarren horiei jakinaraztea b) letran adierazitakoaren arabera eginiko edozein zuzenketa, kenketa edo blokeatze, ezinezkoa edo ahalegin izugarria suertatzen ez bada.

VI. ATALA. SALBUESPENAK ETA MUGAK

13. Artikulua. *Salbuespenak eta mugak*

1. Estatu kideek lege neurriak erabaki ahal izango dituzte zenbait artikulutan aurreikusitako eginbehar eta eskubideen helmena mugatzeko, hain zuzen ere, 6. artikulua 1. idatz-zatian, 10. artikuluan, 11. artikulua 1. idatz-zatian eta 12. eta 21. artikuluetan, mugatze hori beharrezkoa denean ondorengo hauek babesteko:

- a) Estatuaren segurtasuna;
- b) defentsa;
- c) segurtasun publikoa;

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



- d) araututako lanbideetan deontologiaren arau-haustean edo arau-hauste penalak aurreikustea, ikertzea, antzematea eta zigortzea;
 - e) Estatu kide baten edo Europar Batasunaren interes ekonomiko eta finantzario garrantzitsua, gai monetarioak, aurrekontuak eta fiskalak barne;
 - f) kontrol-, ikuskatze- edo arautze-funtzioa agintari publikoaren jarduerarekin lotuta, noizbehinka besterik ez bada ere, c), d) eta e) letretan aipatzen diren kasuetan;
 - g) interesatuaren babesa edo beste pertsona batzuen eskubide eta askatasunen babesa.
2. 2. Lege-berme egokien kalterik gabe —pertsona jakinei dagozkien neurri eta erabakietan datuak erabili ahal izatea bereziki baztertzen dutenak—, Estatu kideek aukera izango dute 12. artikuluan aitortzen diren eskubideak mugatzeko lege-xedapen baten bidez, interesatuaren intimitatearen aurka egiteko inolako arriskurik ez dagoenean, eta datuok soilik tratatzekoak badira ikerketa zientifikoko xedez, edo izaera pertsonaleko artxibo gisan gordetzekoak direnean, bolada batez, estatistikak lantzeko xederako soilik behar den denbora gaindituko ez duena.

VII. ATALA. INTERESATUAREN AURKA EGITEKO ESKUBIDEA

14. Artikulua. *Interesatuaren aurka egiteko eskubidea*

Estatu kideek interesatuari zenbait eskubide aitortuko dizkiote:

- a) berari dagozkion datuak tratamendu baten xede izateari aurka egiteko eskubidea, gutxienez 7. artikulua e) eta f) letretan adierazten diren kasuetan, edozein momentutan eta bere egoera partikularrari dagozkion arrazoi zilegiengatik, legedi nazionalak besterik xedatzen duenean izan ezik. Aurka egitea onargarria denean, erantzuleak lantzen duen tratamenduan ezingo die erreferentziarik egin datu horiei;
- b) berari dagozkion izaera pertsonaleko datuen tratamenduari aurka egiteko eskubidea, aurrez eskatuta eta gasturik gabe, erantzuleak aurreikusten duenean tratamendu hori prospekzioren batean erabiltzea; edo informatua egiteko eskubidea datuak hirugarren bati lehen aldiz komunikatu aurretik, eta espresuki aukera izatea komunikazio edo erabilera horren aurka egiteko, gasturik gabe. Estatu kideek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte interesatuek b) letrako lehen idatz-zatian aipatzen den eskubidea dutela jakin dezaten.

15. Artikulua. *Bakarkako erabaki automatizatuak*

- 1. 1. Estatu kideek pertsonari aitortuko diete beraien ondorio juridikoak izango dituzten edo modu esanguratsuan eragingo dieten erabaki baten eraginpean ez egiteko eskubidea, nortasunaren zenbait alderdi —besteak beste, errendimendua lanean, maileguak, fidagarritasuna eta jarrera—, ebaluatzeko xede duen datuen tratamendu automatizatu batean soilik oinarritzen bada.
- 2. 2. Zuzentarau honetako gainerako artikuluetan xedatutakoaren kalterik gabe, Estatu

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



kideek ahalbidetuko dute pertsonaren batek 1. idatz-zatian aurreikusitako erabakietako batera makurtu behar izatea, erabaki hori zenbait egoera berezitan hartzen denean:

a) kontratu bat egin edo betetzeko markoan hartu denean, betiere interesatuak aurkeztutako kontratu hori egiteko edo betetzeko eskaera bete bada edo neurri egokiak badaude, adibidez, bere ikuspuntua defendatzeko aukera bere interes zilegia babesteko; edo b) interesatuaren interes zilegia bermatuko duten neurriak ezarriko dituen lege batek baimentzen badu.

VIII. ATALA. TRATAMENDUAREN ISILPEKOTASUNA ETA SEGURTASUNA

16. Artikulua. *Tratamenduaren isilpekotasuna*

Tratamenduaren erantzulearen edo arduradunaren agintearen pean aritzen diren pertsonak (baita arduraduna ere) eskuartean dituzten datu pertsonalak tratatu ahal izango dituzte soilik tratamenduaren erantzuleak hala eskatzen dienean edo legeak hala agindurik.

17. Artikulua. *Tratamenduaren segurtasuna*

1. Estatu kideek ezarriko dute tratamenduaren erantzuleak eginbeharra duela egokiak diren neurri teknikoak eta antolakuntza arlokoak aplikatzeko datu pertsonalak babesteko: suntsitu, istripuz edo legez kanpoko arrazoiren eraginez, nahigabe galdu eta aldatu, zabaldu edo baimenik gabe sartzearen aurka, bereziki tratamenduak datuen transmisioa sare baten barruan sartzeko duenean; eta datu pertsonalen beste edozein legez kanpoko tratamenduren aurka.

Kontuan izanik dauden ezagutza teknikoak eta horien aplikazioaren kostua, neurri horiek bermatu behar dute segurtasun egokia tratamenduak dituen arriskuekiko eta babestu behar diren datuen izaerarekiko.

2. Estatu kideek ezarriko dute tratamenduaren erantzuleak —tratamendua bere kontura denean—, tratamenduaren arduraduna aukeratu beharko duela, eta honek berme nahikoak ziurtatuko dituela egin behar diren tratamenduen segurtasun tekniko eta antolakuntzako neurriekiko.

3. Tratamenduak enkarguz egiteak kontratu batek edo bestelako ekintza juridiko batek arautua egon beharko du, horietan tratamenduaren arduraduna tratamenduaren erantzulearekin lotua egongo da, eta ondorengo hauek xedatuko dira bereziki:

- tratamenduaren arduraduna tratamenduaren erantzuleak emandako jarraibideen arabera soilik arituko da;

- 1. idatz-zatiaren eginbeharrak —arduraduna finkatuta dagoen Estatu kidearen legedian definituta dauden bezala—, honi ere badagozkiola.

4. Froga gordetzeko xedez, idatziz edo modu antzekoan jasoko dira datuen babesari eta 1. idatz-zatian aipatzen diren neurriei dagozkien baldintzei buruzko kontratuaren edo ekintza juridiko horren zatiak.

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



IX. ATALA. JAKINARAZPENA

18. Artikulua. *Kontrol-aginteari jakinarazteko eginbearra*

1. 1. Estatu kideek xedatuko dute tratamenduaren erantzuleak, edo hala badagokio, bere arduradunak, 28. artikuluan aurreikusitako jakinarazpena egin diezaioten kontrol-aginteari, tratamendua edo tratamendu multzoa, osoa edo partziala, xede batekin edo loturiko xede bat baino gehiagorekin, egin aurretik.
2. 2. Estatu kideek xedatu ahal izango dute jakinarazpena sinplifikatzea edo ez egitea ondoren zehazten diren kasuetan eta baldintzetan soilik:

- interesatuen eskubide eta askatasunak eragin ezin dituzten tratamenduetarako, kontuan izanik tratamenduak erabiliko dituen datuak, Estatu kideek ondo zehazten dituztenean tratamenduen helburuak, tratatuko diren datuak edo datuen kategoriak, interesatuen kategorioa edo kategoriak, datuak komunikatuko zaizkion jasotzaileak edo jasotzaileen kategoriak eta datuak gordetzeko aldia edota

- tratamenduaren erantzuleak izendatzen duenean, lotuta dagoen zuzenbide nazionalarekin bat, datu pertsonalen babeserako arduradun bat, eginkizunen artean bereziki hauxe izango duena:

- barne eremuan, era independentean, Zuzentarau honen baitan erabakitako xedapen nazionalak aplikaraztea,

- tratamenduaren erantzuleak egindako tratamenduen erregistroa eramatea, 21. artikulua
2. idatz-zatian zerrendatzen den informazioa jasoko duena, era horretan bermatuko baita datuen tratamenduak ez eragitea interesatuen eskubide eta askatasunen murrizketarik.

1. 3. Estatu kideek xeda dezakete 1. idatz-zatia ez aplikatzea zenbait tratamenduri, hain zuzen ere, publikoari informazioa erraztea eta publiko orokorrak edo interes zilegia egiazta dezakeen pertsona orok kontsultatzeko irekia dagoen erregistro bat egitea xede duten tratamenduak, betiere lege eta arau xedapenen baitan.

2. 4. Estatu kideek salbuetsi ditzakete jakinarazpena egitetik edo horren sinplifikatze bat xedatu 8. artikulua
2. idatz-zatiaren d) letran zehazten diren tratamenduak.

3. 5. Estatu kideek xeda dezakete izaera pertsonaleko datu ez-automatizatuen tratamenduetan edo horietako batzuetan behin-behinean era sinplifikatuan jakinaraztea.

19. Artikulua. *Jakinarazpenaren edukia*

1. Estatu kideek erabakiko dute jakinarazpenean zein nolako informazioa azaldu behar den, baina gutxienez ondoren aipatzen den hau izango da:

a) tratamenduaren erantzulearen, edo hala badagokio, bere ordezkariaren izena eta helbidea;

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



- b) tratamenduaren xedea edo xedeak;
- c) interesatuen kategoriaren edo kategorien deskribapena, baita tratamendua dagokien datuaren edo datuen kategoriei buruzkoa ere;
- d) datuak komunika dakizkiekeen jasotzaileak edo jasotzaileen kategoriak;
- e) hirugarren herri batzuetara aurreikusitako datuen transferentziak;
- f) deskripzio orokor bat, 17. artikulua araberatratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurriak egokiak diren ebaluatzea ahalbidetuko duena, aurreikuspen modura.

2. 2. 1. idatz-zatian aurreikusitako informazioari eragiten dizkieten aldaketak kontrol-aginteari jakinarazteko prozedurak zehaztuko dituzte Estatu kideek.

20. Artikulua. *Aurre kontrolak*

- 1. 1. Estatu kideek zehaztuko dituzte interesatuen eskubide eta askatasunetarako arrisku zehatzak dituzten tratamenduak, eta tratamendua hasi aurretik aztertuak izan daitezen arduratuko da.
- 2. 2. Aurre egiaztapen hauek kontrol-aginteak egingo ditu tratamenduaren erantzulearen edo datuen babesaren arduradunaren jakinarazpena jaso ondoren; zalantzarik izanez gero, kontrol-aginteari kontsulta egingo zaio.
- 3. 3. Estatu kideek egiaztapen hori Parlamentuak onartutako arau baten markoan, edo tratamenduaren izaera definitu eta berme egokiak ezarriko dituen arau horretan oinarrituta ere egin dezakete.

21. Artikulua. *Tratamenduen publizitatea*

- 1. 1. Estatu kideek beharrezkoak diren neurriak onartuko dituzte tratamenduen publizitatea bermatzeko.
- 2. 2. Estatu kideek ezarriko dute kontrol-aginteak 18. artikulua araberatratamenduen erregistroa eramatea.

Erregistroan gutxienez adieraziko dira 19. artikulua 1. idatz-zatiaren a) letratik e) letrara bitartean ageri diren informazioak.

Edozein pertsona kontsulta dezake erregistroa.

- 3. Estatu kideek xedatuko dute, nahitaez jakinarazi behar ez diren tratamenduen kasuan, tratamenduaren erantzuleek edo Estatu kideek izendatuko luketen beste organoren batek komunikatu behar izatea, era egokian, eskatzen duen pertsona orori, gutxienez 19. artikulua 1. idatz-zatian a) letratik e) letrara bitartean azaltzen den informazioa.

Estatu kideek ezar dezakete xedapen hori ez aplikatzea zenbait tratamenduri, hain zuzen ere, publikoari informazioa erraztea eta publiko orokorrak edo interes zilegia egiazta dezakeen pertsona orok kontsultatzeko irekia dagoen erregistro bat eramatea xede duten tratamenduak, betiere lege eta arau xedapenen baitan.

III. KAPITULUA. ERREKURTZO JUDIZIALAK, ERANTZUKIZUNA ETA ZIGORRAK

22. Artikulua. Errekurtsok

Jar daitekeen errekurso administratiboaren kalterik gabe, 28. artikuluan aipatzen den kontrol-agintearen aurrean bereziki, eta aginte judizialarengana jo aurretik, Estatu kideek ezarriko dute pertsona orok errekurso judizialen bat izan behar duela dagokion tratamenduari aplikatzekoa den Zuzenbide nazionalaren xedapenek aitortzen dizkion eskubideen urraketaren kasuan.

23. Artikulua. Erantzukizuna

1. Estatu kideek xedatuko dute legez kanpoko tratamenduren baten ondorioz edo Zuzentarau honen aplikazioan erabakitako xedapen nazionalekin ekintza bateraezinen baten ondorioz kalteren bat jasaten duen pertsona orok eskubidea izango duela tratamenduaren erantzulearengandik jasandako kaltearen ordaina jasotzeko.
2. Tratamenduaren erantzulea erantzukizun horretatik salbuetsia gera daiteke partzialki edo guztiz demostratzen bada ezin zaiola leporatu kaltea eragin duen ekintza.

24. Artikulua. Zigorrak

Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte Zuzentarau honen xedapenen aplikazio osoa bermatzeko, eta bereziki, Zuzentarau hau betetzeko onartutako xedapenak ez badira betetzen aplikatu beharreko zigorrak erabakiko dituzte.

IV. KAPITULUA. HIRUGARREN HERRI BATZUEI DATU PERTSONALAK TRANSFERITZEA

25. Artikulua. Oinarriak

1. Estatu kideek erabakiko dute hirugarren herri bati tratamendu xede izango diren datu pertsonalak —edo transferitu ondoren tratamendu xede izan daitezkeenak— transferitu ahal izatea soilik hirugarren herri horretan babes egokia bermatzerik dagoenean, Zuzentarau honen gainerako xedapenen arabera Zuzenbide nazionalaren xedapenen betetzearen kalterik gabe.
2. Hirugarren herri batek eskain dezakeen babesaren egokitasuna datuen transferentzia batean edo transferentzia kategoriatan eman daitezkeen zirkunstantzia guztiak kontuan hartuz ebaluatuko da; bereziki hartuko dira kontuan datuen izaera, tratamenduaren edo aurreikusitako tratamenduen helburua eta iraupena, jatorrizko herria eta azken xedeko herria, Zuzenbideko arauak, orokorrak eta sektorekoak, dagokion hirugarren

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



herri horretan indarrean daudenak, baita herri horietan indarrean dauden arau profesionalak eta segurtasun neurriak ere.

3. 3. Estatu kideek eta Batzordeak elkarri pasatuko diote informazioa ustez hirugarren herriren batek 2. idatz-zatiaren arabera babes egokia bermatzen ez duen kasuari buruz.

4. Batzordeak egiaztatzen duenean 31. artikulua 2. idatz-zatian ezarrita dagoen prozeduraren arabera, hirugarren herri batek ez duela babes egokia bermatzen artikulua honen 2. idatz-zatiaren arabera, Estatu kideek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte dagokion hirugarren herri horretara datu pertsonalen transferentzia oro eragozteko.

4. 5. 4. idatz-zatia aplikatuz gertaera hori egiaztatzen bada, Batzordeak egokitzen jotzen duen unean negoziazioak hasiko ditu egoera hori konpontzeko.

5. 6. Batzordeak agerraraz dezake, 31. artikulua 2. idatz-zatian aurreikusitako prozedurarekin bat etorriz, hirugarren herri batek babes egokia bermatzen duela artikulua honen 2. idatz-zatiaren arabera; izan ere, kontuan hartuko dira bere barne legedia edo nazioarteko konpromisoak, eta pertsonen bizitza pribatua edo askatasunak edo oinarrizko eskubideak babesteko xedez 5. idatz-zatiko negoziazioen bukaeran bereziki izenpetutakoa. Estatu kideek beharrezkoak diren neurriak erabakiko dituzte Batzordearen erabakiarekin bat etortzeko.

26. Artikulua. *Salbuespenak*

1. 25. artikuluan xedatutakoaz gainera, eta, salbu eta kasu partikularrak arautzen dituen Zuzenbide nazionalaren aurkako xedapena, Estatu kideek xedatuko dute datu pertsonalen transferentzia bat egin ahal izatea babes egokia bermatzen ez duen hirugarren herri batera 25. artikulua 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, baldin eta:

a) interesatuak dudarik gabe aurreikusitako transferentziari baimena eman badio, edo b) transferentzia beharrezkoa bada interesatuaren eta tratamenduaren erantzulearen arteko kontratu bat betetzeko edo interesatuak eskatuta aurre-kontratuaren neurriak betetzeko,

edo c) transferentzia beharrezkoa bada egindako edo egitear dagoen kontratu bat betetzeko tratamenduaren erantzulearen eta hirugarren baten artean, interesatuaren interesean, edo d) transferentzia beharrezkoa eta legez eskatua bada interes publiko garrantzitsuren bat zaintzeko, edo prozedura judizialen batean eskubide baten aitortza, jarduera edo defentsarako,

edo e) transferentzia beharrezkoa bada interesatuaren bizi-interesa zaintzeko,

edo f) transferentzia erregistro publiko batetik egiten bada, lege eta arau xedapenen arabera, helburu duena publikoari informazioa erraztea eta irekia dagoena publiko orokorraren kontsultetarako, edo interes zilegia erakuts dezakeen edozein pertsonarentzat, betiere, kasu bakoitzean, kontsultak egiteko legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

2. 1. idatz-zatian xedatutakoaren kalterik gabe, Estatu kideek baimendu dezakete 25. artikulua 2. idatz-zatiaren arabera babes egokia bermatzen ez duen hirugarren herri batera datu pertsonalen transferentzia bat edo transferentzia multzo bat egitea, tratamenduaren erantzuleak berme nahikoak eskaintzen dituzten pertsonen bizitza pribatu, eskubide eta oinarrizko askatasunei buruz, baita eskubide horien jarduerari dagokion errespetuari buruz; berme horiek kontratuko klausula egokietatik eratorriak izan daitezke.

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



3. Estatu kideek Batzordea eta gainerako Estatu kideak informatuko dituzte 2. idatz-zatiaren arabera emandako baimenei buruz. Estatu kideren batek edo Batzordeak kontrako iritzia adieraziko balute eta behar bezala justifikatuko balute pertsonen bizitza pribatuaren eta oinarrizko eskubide eta askatasunen babesarekin loturiko arrazoiekin, Batzordeak neurri egokiak hartuko ditu 31. artikulua 2. idatz-zatian ezarritako prozedurarekin bat. Estatu kideek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte Batzordearen erabakiarekin bat etortzeko.

1. 4. Batzordeak erabakitzen badu, 31. artikulua 2. idatz-zatian ezarritako prozeduraren arabera, kontratuko zenbait klausula tipok berme nahikoak eskaintzen dituztela, Estatu kideek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte Batzordearen erabakiarekin bat etortzeko.

V. KAPITULUA. JOKABIDE KODEAK

27. Artikulua

1. 1. Estatu kideek eta Batzordeak jokabide kodeak lantzea sustatuko dute Zuzentarau honen aplikazioan Estatu kideek erabakitako xedapen nazionalen aplikazioa egokia izan dakin laguntzeko, betiere sektore bakoitzaren berezitasunak kontuan izanik.

2. Estatu kideek ezarriko dute elkarte profesionalek eta tratamenduen erantzuleen beste kategoria batzuen gainerako erakunde ordezkariak, kode nazionalen proiektuak egin badituzte edo dauden kode nazionalak aldatzeko edo luzatzeko asmoa badute, aginte nazionalen esku uztea kodeak azter ditzaten.

Estatu kideek ezarriko dute aginte horrek zain dezan, beste gauza batzuen artean, Zuzentarau honen aplikazioaren baitan erabakitako xedapen nazionalekin bat etortzea proiektuak. Egokia baderitzo, aginteak interesatuen eta bere ordezkarien oharrak jasoko ditu.

2. 3. Kode komunitarioen proiektuak, baita indarrean dauden kode komunitarioen aldaketak edo luzapenak ere, 29. artikulua aurreikusten duen taldeak aztertu ahal izango ditu. Talde honek esango du, beste gauza batzuen artean, bere esku utzi dituzten proiektu horiek bat datozen Zuzentarau honen aplikazioan erabakitako xedapen nazionalekin. Egokitzen jotzen badu, Taldeak interesatuen edo bere ordezkarien iradokizunak jasoko ditu. Batzordeak taldearen aldeko oniritzia jaso duten kodeen publizitate egokia egin dezake.

VI. KAPITULUA. KONTROL AGINTEA ETA PERTSONEN BABES TALDEA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ

28. Artikulua. Kontrol agintea

1. Estatu kideek xedatuko dute aginte-publikoren bat edo batzuk arduratzea Zuzentarau honen aplikaziorako erabakitako xedapenak beren lurraldean aplikatzeaz.

Aginte horiek esleituta dituzten eginkizunak independentzia osoz burutuko dituzte.

2. 2. Estatu kideek xedatuko dute kontrol-aginteak kontsultatu behar izatea pertsonen

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



eskubide eta askatasunen babesari buruzko arau neurriak edo neurri administratiboak egiteko garaian izaera pertsonaleko datuen tratamenduari dagozkionean.

3. 3. Kontrol aginteak ahalmen hauek izango ditu bereziki:

- ikertzeko ahalmena, tratamendu xede diren datuetara sarbide eskubidea eta bere kontrol eginkizuna ondo betetzeko behar duen informazio osoa biltzeko ahalmena;
- esku hartzeko ahalmen eraginkorrek, besteak beste, 20. artikuluekin bat tratamenduak egin aurretik ebazpenak egitekoa, eta ebazpen horien argitalpen egokia bermatzekoa, edo blokeatzea, kentzea edo ezabatzea agintzekoa, edo baita behin-behinekoz edo behin betikoz tratamendu bat debekatzekoa ere, edo tratamenduaren erantzuleari ohartarazteren edo kargu-hartzeren bat egitekoa edo gaia parlamentuen edo bestelako erakunde politiko nazionalen eskuetan uztekoa;

-auzibide-ahalmena Zuzentarau honen aplikaziorako erabakitako xedapen nazionalak urratuz gero, edo urraketa horiei buruzko informazioa epaile-agintearen esku jartzekoa.

Kontrol-agintearen erabakiek eskubideen kaltetzea dakartenean, jurisdikzio-helegiteen xede izan daitezke.

4. Kontrol-aginte orok entzungo ditu edozein pertsonaren eskaerak, edo ordezkatzeko duen edozein elkarterenak, datu pertsonalen tratamenduari buruzko bere eskubide eta askatasunen babesarekin zerikusia badute. Pertsona horrek egindako eskaerari eman zaion bideari buruzko informazioa jasoko du.

Kontrol-aginte orok entzungo ditu bereziki tratamendu baten zilegitasuna egiaztatzeko eskaerak, edozein dela aurkeztu duen pertsona, Zuzentarau honen 13. artikuluen baitan erabakitako xedapen nazionalak aplikatzekoak direnean. Kasu guztietan pertsona horri informatuko zaio egiaztatzea egin denean.

1. 5. Kontrol-aginte orok aldi behin jardueri buruzko txostena aurkeztuko du. Txosten hori argitaratuko da.

6. Aginte-kontrol orok eskumenak izango ditu —edozein direla dagokion tratamenduari aplikatu beharreko Zuzenbide nazionalako xedapenak— bere Estatu kide horren lurraldean artikuluko honen 3. idatz-zatiaren arabera aitortzen diren botereak erabiltzeko. Aginte horri bere botereak erabiltzeko eska diezaioke beste Estatu kide baten aginteak.

Kontrol-aginteak elkarrekin lankidetzan arituko dira bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa den neurrian, erabilgarritzat jotzen duten informazioa elkarren artean trukatzuz bereziki.

2. 7. Estatu kideek xedatuko dute kontrol-aginteetako kideak eta eragileak sekretu profesionalaren pean egongo direla esku artean izan duten isilpeko informazioekiko, baita bere eginkizunak utzi eta gero ere.

29. Artikulua. *Pertsonen babes taldea datu pertsonalen tratamenduari dagokionez*

1. Pertsonen babeserako talde bat sortuko da datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, hemendik aurrera “Taldea” izena izango du.

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



Talde horrek aholkulari izaera izango du eta independentea izango da.

2. Taldearen osaketa: Estatu kide bakoitzak izendaturiko kontrol-agintearen edo kontrol-aginteen ordezkari bat, Erkidegoko instituzio eta erakundeek sorturiko agintearen edo aginteen ordezkari bat eta Batzordearen ordezkari bat.

Taldearen kide bakoitza ordezkatzeko duen erakundeak, aginteak edo aginteen izendatua izango da. Estatu kide batek kontrol-aginte bat baino gehiago izendatzen dituenean, hauek ordezkari komun bat aukeratuko dute. Gauza bera egingo dute Erkidegoko instituzioek eta erakundeek sorturiko aginteen.

1. 3. Taldeak kontrol-aginteen ordezkarien gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak.
2. 4. Taldeak bere presidentea aukeratuko du. Bi urteko iraupena izango du presidentearen agintaldiak. Agintaldia berriro daiteke.
3. 5. Batzordeak Taldearen idazkaritza eginkizunak egingo ditu.
4. 6. Taldeak bere barne araudia onartuko du.
7. Taldeak bere presidentea —bere ekimenez, nahiz kontrol-aginteen ordezkariaren batek edo Batzordeak hala eskaturik— gai zerrendan sartu dituen gaiak aztertuko ditu.

30. Artikulua

1. Ondorengo hauek izango dira Taldearen eginkizunak:

- a) Zuzentarau honen aplikaziorako onarturiko xedapen nazionalen dagokien guztia aztertzea, aplikazio homogeneoa lortzen laguntzeko xedez;
 - b) Batzordeari zuzenduriko ebazpen bat egitea Erkidegoaren barruan eta hirugarren herrietan dagoen babesari buruz;
 - c) Batzordea aholkatzea Zuzentarau honen edozein aldaketa proiektuari buruz, datu pertsonalen tratamenduari dagozkion pertsona fisikoen eskubide eta askatasunak gordetzeko xedez neurri gehigarriak edo bereziak onartzea eskatuko duen edozein proiektuari buruz, baita erkidegoko neurri proiektuei buruz ere eskubide eta askatasunei eragiten badie;
 - d) Erkidegoan landuriko jokabide kodeei buruzko ebazpena egitea.
2. 2. Taldeak antzemango balu pertsonen babesaren baliokidetasunari eragiteko moduko desberdintasunak daudela Erkidegoan Estatu kideen legedi eta praktiken artean datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, Batzordea informatuko du.
 3. 3. Taldeak, bere ekimenez, gomendioak eman ditzake pertsonen babesarekin zerikusia duen edozein gai buruz Erkidegoaren datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.
 4. 4. Taldearen ebazpenak eta gomendioak Batzordeari eta 31. artikuluan aurreikusitako Komiteari helaraziko zaizkio.
 5. 5. Batzordeak Taldea informatuko du ebazpen eta gomendio horiek jarraitu duten bidetari buruz. Horretarako, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari ere helaraziko zaie txosten bat idatziko du. Txosten hori argitaratuko da.
 6. 6. Taldeak urteroko txostena egingo du pertsona fisikoen babes egoerari buruz Erkidegoan eta hirugarren herrietan datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, eta Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari helaraziko dio. Txosten hori argitaratuko da.

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



VII. KAPITULUA. ERKIDEGOKO BETETZE NEURRIAK

31. Artikulua. Komitea

1. Batzordeak Komite baten lankidetzaz izango du, Estatu kideen ordezkariak osatuta eta Batzordearen ordezkari presidente duela.
2. Batzordearen ordezkariak hartu beharreko neurrien proiektu bat aurkeztuko dio Komiteari. Komiteak proiektu horri buruz ebazpena egingo du presidenteak erabakiko duen epearen barruan, aztertzen ari den gaiaren premiaren arabera izango dena.

Ebazpena egingo da Itunaren 148. artikuluan 2. idatz-zatian aurreikusitako gehiengoaren arabera. Komite barruan Estatu kideen ordezkarien botoak haztatu egingo dira artikuluan horretan ezarritakoaren arabera. Presidenteak ez du parte hartuko bozketan.

Batzordeak berehalakoan aplikatu behar diren neurriak onartuko ditu. Hala ere, neurri horiek Komitearen ebazpenarekin bat ez baletoz, Kontseiluaren Batzordeak luzatu gabe komunikatu egin beharko luke. Kasu horretan:

- Batzordeak hiru hilabeteko aldi batez atzeratuko luke neurrien aplikazioa komunikatzen den datatik kontatzen hasita;
- Batzordeak, gehiengo kualifikatuarekin, bestelako erabakiren bat har dezake aurreko gidoiko epe horretan.

AZKEN XEDAPENAK

32. Artikulua

1. Estatu kideek beharrezkoak diren lege-, arau- eta administrazio-xedapenak onartuko dituzte Zuzentarau honetan ezarritakoa bete ahal izateko, hiru urteko epean gehienez ere, onartzen den egunetik kontatzen hasita. Estatu kideek xedapen horiek onartzen dituztenean, Zuzentarau hau aipatuko dute edo bere argitalpen ofizialean erreferentzia horrekin batera azalduko dira. Estatu kideek ezarriko dituzte erreferentzia horren erak.
2. Estatu kideek zainduko dute Zuzentarau honen baitan Zuzenbide nazionalak onarturiko xedapenak indarrean jartzen direnean hasita dauden tratamenduak hiru urteko epean bat etortzea xedapen horiekin. Dena den, lehenengo paragrafoan xedatzen denaz gainera, Estatu kideek erabaki dezakete Zuzentarau honen aplikazioan erabakitako xedapen nazionalak indarrean jartzen direnean, esku fitxategietan sartuta dauden datuen tratamenduak 6., 7. eta 8. artikuluetan diotena betetzeko hamabi urteko epea izatea Zuzentaruaren onarpenetik aurrera zenbatuta. Hala

www.inter-ius.com

Teléfono 944069691 /675707690

mailto: info@inter-ius.com



ere, Estatu kideek interesatuari eskainiko diote, aurrez eskatuta, eta bereziki, bere sarbide eskubidea dela eta, datu osagabeak, zehaztugabeak edo tratamenduaren erantzuleak zituen helburu zilegiekin datuok era bateraezinean gorde baldin badira, datuak aldatu, ezabatu edo blokeatzeko eskubidea.

3. Dena den, 2. idatz-zatian xedatutakoaz gainera, Estatu kideek xedatu ahal izango dute, berme egokiak eskainiz gero, ikerketa historikoaren xedez soilik gorde diren datuek Zuzentarau honen 6., 7., eta 8. artikuluek xedatutakoa bete behar ez izatea.

1. 4. Estatu kideek Batzordeari komunikatuko diote Zuzentarau honen baitan araututa onartzen diren barne Zuzenbideko xedapenen testua.

33. Artikulua

Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari aldian behin eta lehenengo aldiz hiru urteko epean 32. artikulua 1. idatz-zatian aipatzen den datatik aurrera, txosten bat aurkeztuko die Zuzentarau honen aplikazioari buruz, eta hala badagokio, aldaketa proposamenekin batera. Txosten hori argitaratuko da.

Batzordeak bereziki aztertuko du Zuzentarau honen aplikazioa zenbait daturen tratamenduetan, hain zuzen ere, pertsona fisikoei dagozkien soinu eta irudiak biltzen dituzten tratamenduetan, eta egokitzat jo eta beharrezkoak suerta daitezkeen proposamenak egingo ditu informazioaren teknologiaren aurrerakuntzen arabera, eta informazioaren gizartearen lanen arabera.

34. Artikulua

Zuzentarau honen jasotzaileak Estatu kideak izango dira.

.(1) DO C 277, 1990/11/5, 3. or. eta DO C 311, 1992/11/27, 30. or.

.(2) DO C 159, 1991/06/17, 38. or.

.(3) Europako Parlamentuko Ebazpena, 1992ko martxoaren 11koa (DO C 94, 1992/04/13, 198. or.), 1993ko abenduaren 2an berretsia (DO C 342, 1993/12/20, 30. or.); Kontseiluaren posizio komuna, 1995eko otsailaren 20koa (DO C 93, 1995/04/13, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Erabakia, 1995eko ekainaren 15koa (DO C 166, 1995/07/03).

.(1) DO L 197, 1987/07/18, 33. or.